

Alkartasuna



Alkartasuna Fundazioaren aldizkaria | 2025eko aldizkaria | 76 zk.



Emakumeak politikagintzan

non zer nork

3

Editoriala

Gu, emakumeok

4-6

Erreportajea

Emakumeak politikagintzan

7

Elkarrizketa

Emakumeak digitalizazio arloan

Lore Martinez Axpe

8

Erreportajea

Emakume berri bat goi politikan

Naiara Fernández Madariaga

9

Elkarrizketa

Iria Epalza Makoartu

10

Análisis

10 claves en la relación de la mujer y la política

Eva Silván

11

Opinión

Política industrial vasca

Niko Cuenca Beristain

12-14

Kronika

Itsas Gudari Eguna 2025

Irantzu Perello Lafuente eta

Zelai Nikolas Ezkurdia

15

Laburrak

alkartasuna

Alkartasuna Fundazioaren
aldizkaria

2025eko aldizkaria
Portuetxe bidea, 23 | Donostia
D.L./L.G. SS 714/88

Koordinatzailea

Hugo Uruñuela Nicolás

Erredakzioa

Mikel Oraá Díaz de Heredia
Mikel Claver Herrera

Maketazioa

Pictogram Diseinu & Komunikazioa

Gu, emakumeok

Sororitateari, kemenari, esfortzuari eta gure eskubideen defentsan inbertitutako denborari esker asko hobetu dugu emakume gisa dugun bizi-kalitatea. Zalantzarik gabe, aurrera egin dugu eskubideetan. Ez da zoriaren emaitza izan. Justizia da. Ehunka urtetan, mundu osoko emakumeek bizitza utzi dute, gaur gu, haiek baino hobeto egon gaitezen. Memoria horren oinordekoak gara.

Gauzak aldatzen doaz, baina oraindik ere, nagusiki, etxeko kontu gehienez arduratzen garenak izaten jarraitzen dugu. Hazkuntza. Gure senide gaixoak zaintzen ditugunak, biloben kargu egiten garenak. Baita munduko leku askotan oraindik ere gure lan ez ordainduarekin herria sostengatzen dugunok ere. Bizitza aldapan gora jartzen denean, emakumeok pauso bat ematen dugu aurrera. Politika ez da salbuespena. Politikan ere erakutsi dugu gure rola ez dagoela etxean bakarrik. Guztiz gaituta gaude maila gorenean erabakitzeke, baita gure herria kudeatzeko ere, beharrezkoa balitz. Adibidez, EAko idazkari nagusia emakumea da. Gure espazio politikoan, EH Bilduren autoritate instituzional gorena emakume bat da. EAK hiru legebiltzarkide ditu Eusko Legebiltzarrean. ALE Europako alderdi politikoko presidentea ere. Dozenaka zinegotzi Euskal Herriko udaletan eta ehunka emakume militante euren komunitateekin konprometituta.

Ez dugu inor baino gehiago izatea eskatzen. Eskubideetan berdinak izatea eskatzen dugu. Gizonen ondoan berdinak bezala jardutea. Simplea; baina gizarte matxistak eta heteropatriarkalak kontrajartzen dituen erresistentzia izugarriak ikusita, konplikatua aldi berean. Bizi dugun eskubideen atzerakadak izugarri kezkatzen gaitu. Bide errazek ez daramate urrun. XXI. mendeak ezin gaitu XIX. mendera itzuli. Borrokalari irmoak gara, eta ez dugu etsiko gure eskubide guztien aldarrikapenean, berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizitzeko helburuan.

Guretzat. Gugatik.

La sororidad, la determinación, el esfuerzo y el tiempo dedicado a la defensa de nuestros derechos han mejorado mucho nuestra calidad de vida como mujeres. Sin duda hemos avanzado en derechos. Pero no ha sido suerte. Es justicia. Durante cientos de años, mujeres de todo el mundo se han dejado la vida para que hoy, nosotras, estemos mejor que ellas. Somos las sucesoras de esa memoria.

Las cosas van cambiando, pero todavía hoy, mayoritariamente, seguimos siendo las que nos ocupamos de la mayoría de los asuntos domésticos. De la crianza. Las que cuidamos a nuestros familiares enfermos, las que nos hacemos cargo de las nietas y nietos. Incluso las que todavía en muchos lugares sostenemos el país con nuestro trabajo abnegado no remunerado. Cuando la vida se pone cuesta arriba, las mujeres damos un paso al frente. La política no es una excepción. También en la política hemos demostrado que nuestro papel no está sólo en casa. Estamos perfectamente capacitadas para decidir al más alto nivel, y hasta para gestionar nuestro país si fuera necesario. Por ejemplo, la secretaria general de EA es una mujer. La máxima autoridad institucional de EH Bildu, nuestro espacio político, es una mujer. EA tiene tres parlamentarias en el Parlamento Vasco. A la presidenta del partido político europeo ALE. Decenas de concejalas en los ayuntamientos de Euskal Herria y cientos de mujeres militantes comprometidas con sus comunidades.

No exigimos ser más que nadie. Pedimos ser iguales en derechos. Trabajar como iguales junto a los hombres. Simple; pero dadas las enormes resistencias que opone la sociedad machista y heteropatriarcal, complicado a la vez. Nos preocupa enormemente la regresión en derechos que vivimos. Aunque caminos fáciles no llevan lejos. El siglo XXI no nos puede devolver al XIX. Somos firmes luchadoras que no desfalleceremos en la reivindicación de todos nuestros derechos para vivir en una sociedad plenamente igualitaria.

Por todas vosotras, compañeras.

Emakumeak politikagintzan

Erronka are handiagoa da emakume izateagatik

El reto es todavía mayor por ser mujer

Ikerketa eta txosten ezberdinek, Apolitical fundazioaren “*Mere Mortals*” bezalakoak adibidez, erakusten dute politikan aritzeak, oreka emozionalari eta ongizate pertsonalari uko egitea dakarrela. Politikan aritzen diren pertsonen osasun mentala presio altua jasaten duten beste lanbide batzuen baina okerragoa da. Lanbidearen gogortasuna disuasioa da askorentzat, besteak beste, baina bereziki emakumeentzat.

Bestalde, gehiegizko exijentzia orokortuz doa klase politikoan eta batez ere emakumeak “superheroi” gisa ikusteko eta erakusteko joera deuseztatzailea dago. Agenda amaigabeak jasan ditzaketela eta gainera etsi gabe eutsi behar dietela. Hots, emakumeak ezin dira kexatu, edo berehala ezgai ahulak balira bezala ikusiko lirateke, egoera horretara iristeko arrazoi inolako azterketarik egin gabe. Sanna Marin Finlandian, Jacinda Arden Zeelanda Berrian edo Nicola Sturgeon Eskozian bezalako politikek erakutsi dute haien jarduerak berekin dakarrela bizitza pertsonalaren eta profesionalaren azterketa publikoa nola edo hala onartzea eta etengabeko ebaluazioa pairatzea. Batzuetan intimidazioraino eta jazarpeneraino helduz. Zein da Euskal Herriko egoera? Galdera horri erantzun nahi izan diogu Eusko Alkartasunan maila ezberdinetan ardura politikoak dituzten hainbat emakumeekin, baina ziur alderdiko guztiek gai honi buruzko oso esperientzia interesgarriak dituztela kontatzeko ere.

Eba Blanco de Angulo alderdiko idazkari nagusia eta Eusko Legebiltzarreko mahaiko bigarren presidenteordea da. Nerea Martinez Cerrillo Araban eta Rakel Goñi Lakar Bizkaian, beren lurraldeetako batzar nagusien mahaikide dira ere. Blancok zuzenean aitortzen du emakume izateagatik diskriminazioak eta erasoak pairatu dituela. “*Oso argi utzi nahi dut jokabide puntualak izan direla, baina bizi behar izan ditudan egoera desatsegin asko, baita publikoki ere, ez litzaizkidake gertatuko gizona banintz*”. Bere aburuz zalantzarik gabe, politika eta bere ingurua matxista da. “*Legegintzaldiko osoko bilkurarik garrantzitsuenetako batean, komunikabide batek egun*



“Muchas situaciones desagradables que he vivido, incluso públicamente, no me hubieran pasado si fuera hombre”

Eba Blanco de Angulo

hartan emakume batzuek eraman genituen look-ak aztertu zituen. Haserretu eta tristetu ninduen albistea hori izateak, eta ez ordea politikoki benetan garrantzitsua zena. Emakumeok ez gaude politikan gure irudiaren arabera aztertuak izateko; hori gizonekin ez da egiten”.

Eta gero Estatua dago. Gai honetan ere, Euskal Herriarekin alderatuta beste mundu bat. Hemengoa gutxi balitz, txarrera nabarmen egiten duen kosmosa, alegia. Badira bertan abertzale independentistak, euskaldunak eta emakumeak diren politikariak, adibidez, Madrilen aritzen direnak, non eta Senatuan gainera, ez oso modernoak, ez oso aurrerakoia den erakundea. Han, testosterona askatuta dago eta misoginia lotsagabea da. Idurre Bideguren Gabantxo kasu. “*Errespetu faltak askotan*

ikusten dira. Hitzeko erasoak sarritan gertatzen dira, eta batzuetan zaila da zeren emozioetan eragiten dute”. Dena den, bizkaitarrak Senatuko giro ozpindutik haratago joatea nahi du. “Politikak bizitzan faktura pasatzen du eta emakumeon kasuan, gehienetan, faktura haundiagoa da. Sakrifizio haundiago egiten dugu politikagintzan aritzeko besteak beste denbora, eta zaintza lanen kudeaketa ez dagoelako oraindik konponduta”. Eta gero, norberaren exigentzia eta erantzukizunaren zentzua tartean dago ere. “Hain zuzen ere, Bermeoko lehenengo emakume alkate nintzela, hau ere karga gehigarri bezala hartu nuen. Konpromiso eta konbentzimendu osoa nuen gobernatzeko modu ezberdinak behar zirela. Seguruenik txikitatik barneratu ditugun estereotipoek eragiten digute”.

“La política pasa factura en la vida y, en el caso de las mujeres, en la mayoría de los casos, la factura es más grande”

Idurre Bideguren Gabantxo



gehiago eskatzea “bakarrik”. Askotan gizonek, “amore emanez tratatzen gaituztela edo “gauzatxoak” azaltzen dizkigutela ere jasan behar izaten dugu; horri “mansplaining” esaten zaio”. Zuzenean biolentzia politikoaren kontzeptua azaleratzen du Salazarrek. “Gure sinesgarritasunarekin eta konfiantzarekin amaitu nahi duten indarkeria moduak dira, gure ize-na zikintzeko eta gure lan politikoan gu gelditzeko. Hori ez al da biolentzia modu bat?”, gogoetatzen du ozenki.

“Queremos acabar con nuestra credibilidad y confianza, para desacreditarnos y frenarnos en nuestra labor política, es violencia política”

Aitziber Salazar Arresti



Udalgintza politikaren lehen lerroa da. Esparru horretan politikariek harreman zuzenagoa dute herritarren egunerokoarekin. Aitziber Salazar Arresti, Gasteizko EH Bildu udal taldean zinegotzi dabil. Bere ustez, ez da politikan jarduten diren emakumeek

Bere aldetik, Jasone Giraldo Menendezek arlo sozialak daramatza Arrasateko udal gobernuan. Hiru batzordetako presidentea da gainera. “Gaur arte udalean eroso eta errespetatua sentitu naiz beti”. Hala eta guztiz ere, Giraldo ez du emakumeek pairatzen dituzten exigentzien auzia inondik inora saihesten. “Emakumeoi emakume izanagatik berez ezarri zaizkigun erronkei, beste hainbat gehitzen zaizkigu: markatutako espektatiben neurrira egotea eta erresoluzio gaitasuna demostratzea, karakterra izatea

eta, aldi berean, sentiberatasuna, une oro zauden lekua merezi duzula demostratzea, kreatibitatea, ordena, sozializatzeko gaitasuna...". Eta honekin batera zinegotziak beste bigarren gogoeta interesgarri bat utzi du langan zintzilika, hain zuzen ere goi-karguetara iristearena: "emakume bat horra heltzeko, gizon batek baino askoz gehiago demostratu behar izan du eta etengabe demostratzen aritu beharko da. Gure kasuan, goi karguak ez dira errekonozimendu hutsak, benetako ahalegin, prestaketa, esfortzu eta demostrazioen lorpenak baizik".

"En nuestro caso, los altos cargos no son meros reconocimientos, sino logros de empeño, esfuerzo, preparación, y demostración"

Jasone Giraldo Menendez



"En Iparralde se está evolucionando mucho"

"Desde luego, en mi ámbito político, las mujeres tenemos cada vez más relevancia y protagonismo y trabajamos con los hombres de igual a igual", comenta la coordinadora de Eusko Alkartasuna en Iparralde, Miren Urreiztieta Zuelgarai. Añade que en esta zona del país, "la relación en el ejercicio de la política entre los diferentes sexos está evolucionando mucho" y que además desde su experiencia actual, "los retos son comunes y se afrontan juntos sin distinción".

No obstante, y aunque tampoco puede asegurar que en todos los casos fuera por su género, también admite que como mujer, durante sus años de dedicación política, ha vivido momentos "muy duros".



Miren Urreiztieta Zuelgarai

Eusko Alkartasunako Iparraldeko koordinatzailea

Emakumeak digitalizazio arloan



Lore Martinez Axpe informatika ingeniaria da. ZTIM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Matematikak) eta generoan aditua. Gaur egun, Eusko Legebiltzarrean EH Bilduko legebiltzarkidea.

Nolako izaten ari da zure Legebiltzarreko esperientzia?

Egia esan esperientzia oso aberasgarria izaten ari da. Oso pribilegiatua sentitzen naiz Euskal Herriko 3 lurralde hauetan egiten diren lege eta ekimenetan oro har, parte hartzeko aukera baliatuaz, txikiak izanik ere ekarpenak egiteko aukera izateagatik.

Azaldu labur, zein da bertan burutzen duzun lana?

Legebiltzarrean digitalizazioko gaiak eramaten ditut. Hezkuntzaren digitalizazioaren inguruan, administrazio digitalaren inguruko gaiak, etab. Beti ere herri ikuspegiaz, digitalizazioaren demokratizaziorantz hurbiltzeko ahaleginak eginez, burujabetasun teknologikoa bultzatuz eta beti ere eskubide digitalak bermatuz.

Eremu digitala gero eta presenteagoa da egunerokotasunean. Emakume bezala, zeintzuk dira horren aurrean ditugun erronka nagusiak?

Emakume gehiago behar ditugu digitalizazio arloan, ez bakarrik erabiltzaile bezala, garatzaile bezala batez ere. Eraldaketa digitala eta adimen artifizialaren etorreraren eragin izugarriaz, emakumeak eragile aktibo izan behar dute. Bizitza errealean ditugun diskriminazio eta alborapen guztiak, ezin ditugu bizitza digitalean errepikatzen utzi eta horretarako beharrezko dira emakumeen iritzi, esperientzia, egiteko moduak

bertan islatuta egotea, eraldaketa digitala justua, arduratsua eta inklusiboa izan dadin.

Feminismoaren gorakadaren kontrako erreakzioa nabaria da eremu digitalean ere. Zer egin dezakegu horren aurrean?

Lehen ere feminismoaren aurkako erreakzioak nabarmenak ziren eta orain Ipar Amerikatik datozen aire tekno-faxistak areagotu egin dute kontraktasun hau. Tinko eta irmo egin behar diegu aurre, bizitza errealean egiten dugun indar eta irmotasun berdinaz eta ezinbestean digitalizazioaren eragile aktibo izanik.

“Emakume gehiago behar ditugu digitalizazio arloan, ez bakarrik erabiltzaile bezala, garatzaile bezala batez ere”

“Necesitamos más mujeres en el ámbito de la digitalización, no solo como usuarias, sino sobre todo como desarrolladoras”

Lore Martinez Axpe

Lore Martinez Axpe

EH Bilduko legebiltzarkidea

Beste emakume bat goi politikan

Eusko Legebiltzarrak 45 urte betetzen ditu aurten. 1980an abiatu zen EAEko organo instituzional gorenaren jarduera eta ordutik errealitatea asko aldatu da. Ezberdintasun esanguratsuak daude orduko erakunde eta gaur egungoa alderatzen baditugu. Horien artean nabarientako bat emakumeen presentzia da, hain zuzen. Lehengo legegaldian hautatutako 75 pertsonetatik 5 baino ez ziren emakumeak izan. Gaur, 2024ko hauteskundeak eta gero, Legebiltzarraren gehiengoa suposatzen dute, osotara 39 emakume izanik.

Horietako bat da Naiara Fernandez Madariaga. Eusko Alkartasunako afiliatua, Bermeoko udalean zinegotzi bezala zortzi urtez aritu eta gero Eusko Legebiltzarrerara saltoa eman zuen 2024an EH Bilduren eskutik. Oraindik ere *“EAEko organo instituzional gorenean aritzeak suposatzen duen errespetu handiagatik urduritasun puntu batekin”* badabil ere, lehenengo hilabete hauek *“pozik”* igaro ditu, *“egunero ikasteko”* aukera izan duela aipatuz.

Bertan emakume *“interesanteak, azkarrak eta jakintsuak”* aurkitu dituela azpimarratzen du. Gauzak aldatu direla onartzen badu ere, batzuetan emakumeen parte-hartzea historikoki emakumeekin lotu izan ohi diren *“zaintzak bezalako”* gaietara mugatzen dela ikusi du hilabete hauetan. *“Hala ere, hor gabiltza, gero eta terreno gehiago irabazten. Eta hor ibiliko gara, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiten”*.

Eguneroko lan hori aurrera eramateko giro aproposa aurkitu du. *“EH Bilduko taldean 27 legebiltzarkide gaude gehi kide tekniko guztiak, eta batzuetan hainbeste pertsonen artean ondo moldatzea ez da erraza izaten, baino, egia esanda, oso ondo konpontzen gara gure artean”*. Legebiltzarkide berria izanik, eskarmentu handiagoa duten kideen laguntza ezinbestekoa izan duela onartu du bermeotarrak eta horregatik *“oso eskertuta”* dago.

Beste alderdiekin, aitzitik, *“iskanbilak”* badaudela onartu du. Hauek, hori bai, *“batzorde eta osoko bilkuretako eztabaidetara”* mugatzen direla azpimarratu du, egunerokotasunean *“errespetu osoz”* ibiltzen direla baieztatuz.

Batzorde eta bilkuretan arrantza, merkataritza edota herri kultura bezalako gaiak lantzen ditu, besteak beste. *“Bermeotarra izanik argi eduki nuen arrantza*



eta portuei buruz arituko nintzela. Pozik nago horrekin, izan ere aitona-amonak eta gurasoak arrantza mundutik datoz. Aitona eta aita arrantzaleak ziren, beraz txikitatik ezagutzen dudana mundua da”.

Beste gaiei ere gogotsu heldu die. *“Enpresa txikien eta jabe elkarten aholkularitza lanean ibili nintzen, hortaz merkataritza gaiak eramateko aukera eskaini zidatenean ondo ikusi nuen. Baita herri kulturarena ere. Bermeoko Alkartasuna Dantza Taldeko dantzaria izanik elkarten mundua ere ezagutzen dut eta oso gai polita iruditzen zait”*. Merkatarari zein kultur eragileekin lanean ibiltzea da, hain zuzen, Fernandez Madariagak azpimarratzen duen baloreetako bat. *“Elkarteekin eta herriko jendearekin harremanak izatea asko gustatzen zait. Eragile eta jende ezberdin asko ezagutzeko aukera daukat, oso pertsona interesanteak aurkitu ditut bidean”*.

Naiara Fernandez Madariaga

EH Bilduko legebiltzarkidea

“Italiaren adibidea oso arriskutsua da: emakume batek gobernatzeko duelako, ez da feminista”



Zure esparru politikoak berdinetik berdineratratzen ditu emakumeak?

Azalean hori dirudien arren, *feministok*, “*zergatik kexatzen zarete hainbeste? Inoiz baino berdintasun gehiago dago gure gizartean, eta zuek oraindik gehiago nahi?*” maiz entzuten badugu ere, politikagintzaren eta zuzenbidearen oinarriak errotik aldatzen ez ditugun heinean, gizarteak ezin izango gaitu berdinetratatu. Politikan berdintasun egoeran egongo gara, botere esparru guztietan berdintasunean aritzeko askatasuna izango dugunean.

Zeintzuk dira politikan emakumeok emakume izateagatik aurre egin beharreko erronka bereziak?

Erronka handiena da boterera heldu ahal izatea. Behin hor egonda, botere hori kudeatzeko askatasuna eta bisio feminista izatea.

Beti dago sexismoa edo bortizkeria matxista. Irudiaren inguruko komentarioa, hitza moztu edo kentzea... Irudia emakumeon kontra erabiltzen den arma da. Txiste edo komentario sexistak, esku luzeegi bat, intentzio sexuareko bilera osteak, etab. Adinaren kontua ere. Gaztea bazara, “*txikita*” bat bezala artatzen zaituzte, zure ideiak kontuan ez hartuz, oraindik gizonengandik asko duzula ikasteko erakustaraziz. Heldua bazara, atso zahartzat zauzkate, eta gizonetan sexy eta erakargarri den “adinarren jakinduria” emakumeetan karikatuzatu egiten da. Eta iruzurtiaren sindromea; emakumeok orain arte ez gara gure buruan konfiantza izateko heziak izan, baizik eta alertan eta beldurrez bizitzeko. Gure espazio naturala ez dena “okupatu” bagenu bezalako sentimendua dugu askok, politikagintza oraindik ere leku arrotza delako emakumeontzat. Beraz, emakume askok bikainak izan behar dute eta, hala ere, beren talentuaz zalantza eginaraziko diete.

Nola jokatzeko dute gizonak zure ingurune politikoan?

Badira feministetatik asko ikasi dutenak eta ulertzen dutenak emakumeek pauso bat aurrera egin ahal izateko albo batera egin behar dutela. Badakitenak emakumeen ahotsak entzun ahal izateko batzuetan bada ere ahoa itxi eta belarriak ireki behar dutela. “*Macho*” izaten desikasi duten gizonak.

Eta badaude emakumeen beldur direnak eta emakumei lehen lerroa utziko ez dietenak. Eusko Alkartasunaren militarizazioa dut goi karguetan erreferente feminino gehien izan dituen alderdia delako.

Zure ardura politikoan diskriminazio eta erasoren bat bizi izan duzu emakumea izateagatik?

Bai. Amorrua ematen dit. Mugimendu feministan murgildu arte, inork ez zidan halako jarrera matxistei aurre egiten erakutsi, eta beraz, jasaten nituen, “*normalak*” zirelakoan.

Hortaz, besteak beste, EAko komunikazio ardura duna izan zara, eta nazioarteko goi politikan ere aritua. Europar egoera antzerakoa al da?

Eskuinaren igoeraren eta faxismoaren zurikeriaren ondorioz, gero eta zabalduagoa dago hitzez berdintasunaren alde egotea, baina feminista ez izatea. “*Inoiz baino eskubide gehiago ditugu emakumeok, estatu bat gobernatzeko gai gara, zer gehiago behar dugu?*” Meloni Italian adibidez. Diskurtso hau oso arriskutsua da, justizia sozialari eraso egiten diolako zuzenean, baita emakumeen erabakitze gaitasunari eta espazio publikoa elkar banatzeari ere.

Hedabideek zilegitasun bera ematen diote emakumei?

Betaurreko moreak jantzita duten hedabideak daude; Berria, Argia edo Euskadi Irratia adibidez. Baina orokorrean *mainstream*-a gizonak kudeatzen dute, heteropatriarkatu kapitalistaren baitan. Hala, gure ikuspuntua periferiko eta anekdotikoa da. Egin ariketa bat; hartu El Correo eta kontatu zenbat argazkitan emakumeak diren protagonista, zenbat aldiz agertzen den emakume baten izen abizenak edo kargua izenburuan, emakumea agertzen den berria zein motakoa den. Alderatu gizonekin eta hor duzu erantzuna.

Iria Epalza Markoartu

Kazetaria eta Alkartasuna Fundazioaren Patronatuaren kidea

10 claves en la relación de la mujer y la política de Eva Silván, de *Silván&Miracle*



Eva Silván, fundadora y CEO de *Silván&Miracle*, es politóloga, especializada en análisis político, y colaboradora habitual en medios de comunicación. Por su contrastada experiencia y amplio conocimiento de la política y, por tanto, también de las mujeres que la ejercen, le hemos pedido que apunte, para la revista Alkartasuna, 10 claves que hay que saber en la relación de la mujer y la política:

- 1.** Los cargos de responsabilidad y liderazgo que ocupamos las mujeres en política confirman que el trato que recibimos en el ámbito político no es igual al de los hombres.
- 2.** Hay que estar alerta ante este cambio de época que se está impulsando y que quiere poner en entredicho nuestros derechos.
- 3.** Las mujeres dirigimos carteras vinculadas con el llamado “poder blando”: derechos humanos, igualdad de género y políticas sociales; mientras que los hombres dominan áreas vinculadas al conocido como “poder duro”: defensa, economía, o hacienda, por ejemplo.
- 4.** Cuando asumimos puestos de responsabilidad, en muchas ocasiones lo hacemos en contextos de crisis y de inestabilidad cuando ya no hay nadie el mando. Es el concepto del “precipicio de cristal”.
- 5.** Aitor Esteban, Arnaldo Otegi, Eneko Andueza, Javier de Andrés. ¿Cómo es posible que en ninguna de las 4 principales opciones políticas de la Comunidad Autónoma Vasca, haya una mujer secretaria general?

6. Diversos estudios demuestran que nuestras carreras políticas se complican o se truncan por el cuidado de los hijos o que, directamente, se inician, cuando son más mayores. En el caso de los hombres, el verbo conciliar casi no se conjuga.

7. Otros estudios prueban que la presencia significativa de mujeres introduce prioridades, temas de debate y políticas que hasta entonces estaban ocultos: ¿estaríamos hablando de políticas de cuidado, conciliación, consentimiento en las relaciones afectivo-sexuales si las mujeres no estuviésemos ocupando lugares relevantes en la conversación pública?

8. Las mujeres en política nos enfrentamos, en general, a estereotipos sobre nuestra capacidad de liderazgo, y a más escrutinio mediático, muy asociado a la imagen física, lo que determina en gran medida la imagen que perciben los demás sobre nosotras. Es doblemente injusto

9. En general la práctica totalidad de los partidos políticos cumplen con las listas cremallera en las que se alternan sexos en las candidaturas. Sin embargo, hemos visto en diversos estudios que hemos hecho en *Silván&Miracle* que los partidos ubican hombres en mayor proporción en los primeros lugares de las listas electorales y en posiciones donde saldrán elegidos; relegándonos a segundas posiciones y a lugares donde somos más susceptibles de no salir elegidas.

10. A pesar de que no tenemos ejemplos precedentes, la CAV, como ya sucede en Navarra con María Chivite, está preparada socialmente para que gobierne una mujer.

“Los hechos muestran que el trato que recibimos en el ámbito político no es igual al de los hombres”

Silvan&Miracle.
Estrategias de Asuntos Públicos

silvanmiracle.com
info@silvanmiracle.com

La industria vasca necesita una buena brújula



Corremos el riesgo de perder la pasión por el emprendimiento. Nuestros jóvenes prefieren trabajar por cuenta ajena y muchos empresarios deciden vender sus empresas ante las dificultades que enfrentan. Deberíamos poner en valor el trabajo y la aportación de los empresarios.

Tan importante como apoyar la iniciativa privada es desarrollar instrumentos públicos que garanticen el arraigo de las empresas. El caso de Talgo, por ejemplo, pone de manifiesto la importancia de este tipo de herramientas que han servido para que la sede del fabricante de trenes vuelva a Araba. Mirando atrás, sin embargo, tenemos multitud de ejemplos de empresas que han perdido su arraigo. El Gobierno Vasco ha perdido años en esta materia, sin tener un liderazgo firme.

No se puede entender la política industrial, ni la política empresarial en general, sin inversiones en innovación e investigación. Esa es precisamente la hoja de ruta que debe tener nuestra política industrial, porque es un elemento imprescindible para la productividad. Pero si miramos atrás tampoco parece que hayamos sabido asegurar el arraigo de las empresas tecnológicas. Es más, hemos dejado escapar tesoros del mundo de la informática y de las telecomunicaciones. También en este caso, la falta de liderazgo de la administración ha sido manifiesta. Entre 2007 y 2014 se destinó más dinero a la inversión en carreteras que a la innovación.

El objetivo de la descarbonización

Euskal Herria necesita una estrategia energética clara. Inteligencia artificial, digitalización, centros de datos... la velocidad de la demanda energética se está

multiplicando rápidamente en los últimos años y se incrementará aún más en los siguientes. Los centros de datos se están convirtiendo en actores fundamentales de la industria y estrecharán aún más la red energética que actualmente está saturada. Es necesario diseñar una nueva estrategia energética. En esto también tendremos que hacer autocrítica colectiva. Un país que quiere ser sostenible tiene que apostar por las renovables, con las consecuencias que ello conlleva.

Las claves

- 1.** La innovación y el desarrollo están relacionados con la industria. En el ámbito industrial se consiguen las mejores condiciones de trabajo y garantía de calidad de vida.
- 2.** No podemos decir que la situación sea grave, a pesar de que en algunas comarcas (Aiaraldea-Guardian o Sakana-Sunsundegui) existen indicadores preocupantes.
- 3.** La política industrial necesita fuelle. Los agentes sociales han expresado en los últimos años una serie de inquietudes y reflexiones al respecto. Por ejemplo, el primer informe del grupo Zedarrriak, que acusó de autocomplacencia al Gobierno Vasco. El gobierno se mostró ofendido. Recoger opiniones y críticas es el primer paso para diseñar una estrategia sólida. Sin autocrítica difícilmente conseguiremos definir bien el norte de las políticas industriales.
- 4.** En Euskal Herria hemos identificado la hoja de ruta en otras situaciones de transición y la evolución de nuestra industria es una muestra. La clave es saber dónde está el norte, y para ello se necesita una buena brújula: estrategia, política y liderazgo sólidos.

** Extraído del artículo escrito en euskera para Eusko Alkartasuna por Niko Cuenca Beristain.*

Niko Cuenca Beristain

Gestor de empresas y analista económico

Itsas Gudari Eguna. Estatus politiko berrian aurrera egiteko unea



Urtero bezala, Alkartasuna Fundazioak antolatuta, Itsas Gudari Eguna ospatu genuen Bermeon, hain zuzen ere Matxitxakoko batailan parte hartu zuten Eusko Gudarostearen itsas gudariak omentzeko.

Eguna hasteko, Matxitxakoko lurmuturraren inguruetan gertatutako batailatik 88 urte pasa direnean, gudarien omenezko lore eskaintza egin zuen Aingeru Astui Zarraga itsas kapitanak, bataila garatu zen ur berberetan. Lehorrera bueltan, Néstor Basterretxearen *“Matxitxakoko guda”* eskulturaren lore eskaintza egin zuten bertan elkartutako lagunek.

Behin Matxitxakoko omenaldiak bukatuta, Bermeoko Kafe Antzokira zuzendu zen ekitaldia, Itsas Gudari Egunaren baitan fundazioak antolatutako *“Demokrazia. Erabakia. Subiranotasuna”* lelopean solasaldia abiatzeko. Euskal Herriaren estatus politiko berriaren eta berme guztiekin erabakitze eskubidearen aldeko mobilizazio sozialari buruzko topaketa izan zen, gaur egungo egoera aztertze balio izan zuena.

Estatus politiko berri baten beharra jarri zen mahaia- ren gainean beste behin ere. Eusko Alkartasunako Harreman Instituzionaleko idazkari Iker Ruiz de Egin- no Begoñak hedabideei egindako adierazpenetan, gainera, estatus berri hori sozialdemokraziatik eraiki behar dela azaldu zuen. *“Oro har euskal gizartea aurrerakoia da baina kontserbadorea aldi berean. Gehiengo muturreko ideologietatik urruti kokatzen gara, hortaz, sozialdemokrazia izan beharko luke estatus berriaren oinarria”*, azpimarratu zuen.

Ildo horretatik, EAEko legealdi honetako helburua estatus berria onartzea izatea eskatu zuen, hau garatzeko negoziazioa lehentasun bezala ipiniz.

“Batzuk abertzale harroak gara eta erabakitze eskubidearen aldeko gehiengo politikoa dago, baina guztiok gure bizi-kalitatea hobetu nahi dugu. Gernikako Estatutuak jada ez du balio herri bezala aurrean ditugun erronkei aurre egiteko”, gehitu zuen EAko bozeramaileak.

Esan bezala, estatus politiko berri horren eta erabakitze eskubidearen bidean aurrera egiteko nahia- ri buruz hitz egiteko aukera izan zen *“Demokrazia. Erabakia. Subiranotasuna”* solasaldiarekin. Alderdi instituzionaletik zein eragileen ikuspuntutik aztertu zen gaia. Erakundeetan aritzen diren Unai Urruzuno Urresti Gasteizen legebiltzarkide eta EH Bilduko Po- litika Instituzionaleko arduradunak eta Idurre Bide- guren Gabantxo EH Bilduko senatari eta Bermeoko alkate ohiak hartu zuten parte. Gure Esku herritar pla- taformaren ordezkapena ere izan zen, Irantzu Perello Lafuenteren parte hartzearekin. Azkenik, Zelai Nikolas Ezkurdia legelariak ere aritu zen solaskide.

Prozesu honetan aurrera egiteko leihoa identifikatu zuen Urruzunok, *“kanpamentu barea igotzeko”* ga- raia dela adieraziz. Gernikako Estatutua onartu eta 46 urte geroago guztiz bete gabe dagoela gogorarazi zuen legebiltzarkideak, *“alde batek betetzeko boron- daterik izan ez duelako eta beste aldearekiko nola- baiteko abantaila estrukturalak dituelako”*.



Desoreka estruktural hori iraultzeko momentua izan daitekeela baieztatu zuen legebiltzarkideak: *“Madrilen Gobernu diferentea dago, Estatuaren baitan dauden nazio ezberdinetako indarren babesa behar duena, eta horrek aukerak zabaltzen ditu. Gasteizko Legebiltzarrean baino, joko eskema horren baitan dagoela esango nuke”*.

Bere jarduera politikoa Madrilen egiten du, hain zuzen, Idurre Bideguren Gabantxo EH Bilduko se- natariak. Estatuko erakundeetan subiranotasunaren alde egiten den lanari buruz berba egin zuen sola-

saldian. “Herri bezala guregan eragina duten gaiei buruz hitz egiten den eremuetan dauden negoziatioetan parte hartzearen garrantzia erakusten ari gara”. Esan zuenez, “Estatuaren egoera eta unea batetik, eta hauteskundeetako emaitzek bestetik, gure kabuz erabakitzeko ireki duten zirrikitua aprobetxatu behar dugu”.

Aldiz, Gure Eskuko ordezkaria den Irantzu Perello Lafuenteren hitzetan “gure helburua herria ez lokartzea da. Guztiok batera bultzatuz, gure herria aske izatea lortu dezakegu, ez dugu zergatik Konstituzioaren menpe egon behar”.

Zelai Nikolas Ezkurdia legegariak, bere aldetik, erabakitzeko eskubidea Europako legerian kokatu zuen. Hain zuzen ere bermeen araubide europarra defendatu zuen auziaren balizko irtenbide bezala. “Tresna aproposa izan daiteke hain oinarrizkoa den erabakitzeko eskubidea lortzeko bidean aurrera egiteko”.



Ikusi hemen ekitaldiaren bideoa

“Aurre egiteko herritarron laguntza behar dugu, erabakitzeko eskubidea ez da bakarrik eskubide politiko bat”



Zer nolako lana egiten du Gure Eskuk erabakitzeko eskubidearen alde?

Gure Esku azkenean herritarrez osatutako plataforma bat da eta gure helburu nagusia da erabakitzeko eskubidean aurrera egitea. Beti esaten dugu nazio bat garelara, 7 lurraldez osatutako nazio bat, burujabea eta librea izan nahi duen nazio bat.

Horri aurre egiteko herritarron beharra eta laguntza behar dugu. Azken finean, erabakitzeko eskubidea guztion eskubide bat da. Ez da bakarrik eskubide politiko bat, baizik eta gure egunerokotasunean daukagun eskubidea gauza guztietarako.

Zer ikasi dezakegu Kataluniako prozesutik?

Kataluniako prozesutik, beste edozein prozesutik bezala, gauza asko ikasi daitezke beti. Kataluniar prozesua bidezkoa izan zela uste dut. Beti esaten dut ez zela izan bekatu bat, baizik eta guztiz bidezkoa izan zela. Horren ondorioz estatu espainiarra urduri jarri zen, horregatik etorri ziren ondoren etorritako ondorio guztiak, ze, azken finean, erabakitzeko ondorioak ditu. Hutsune batzuk egon ziren. Agian momentuan hartutako erabaki batzuk ez ziren guztiz egokiak izan, baina zegoen egoeraren eraginaz hartutako bat batego erabakiak izan ziren eta badago asko ikasteko.



Irantzu Perello Lafuente

Gure Eskuren bozeramailea

“Autodeterminazio eskubiderako prozedura bermeen araubide europarra da”



Zein da Europar Batasunean egin duzuen proposamena?

Jose Antonio Agirrek, 1949. urtean gogorarazten ziguenez, prozedura falta da autodeterminazio eskubiderako. Herriek erabakitze eskubidea dute, oinarritzko eskubide bat da, baina zein da prozedura? Eta, nork erabaki behar du prozedura hori? Alderdi batek, estatu batek, ez duenean nahi, zer egin?

Horren inguruan aritu gara. Saiatu gara prozedura bat planteatzen eta gaur egun jada idatzita dago. Gai izan behar gara orain urratsez urrats kudeatzen. Ez da bakarrik kudeaketa politikoa egin beharko, herritarrok ahalduntzeko ere erabili behar dugu, izan ere, gure aldarrikapena bidezkoa da. Prozedura bat edukitzeak bide ematen digu jakiteko nola egin daitekeen.

Honek baliabideak eskatzen ditu, unibertsitate mailan, herrien arteko konplizitateak... lan itzela dago egiteko. Ziurrenik izango da 10 edo 20 urteko lana. Baina beno, bide bat marraztuta dago eta, zentzu horretan, itxaropena hor daukagu lanari ekingo diogu.

Zein puntutan gaude? Zeintzuk izan behar dira orain hartu beharreko urratsak?

Proposamena idatzita dago. Aliantza batzuk eginda daude. Testu hau, momentuz, ez du inork kritikatu. Hori oso arraroa da, beti agertzen da baten bat, baina ez du inork kritikatu. Orain estrategia bat lantzea falta da. Alderdi politikoen esku dago momentu honetan. Saiatuko dira, europar parlamentuan dago eta ego-kia ikusten dutenean tramitera sartuko dute. Baina aurretik lan handia egin behar da. Arinegi aurkezten baldin badugu, beharrezkoak diren aliantzak josi gabe, errazena ezetz esatea izango da. Egia da interes handi asko daudela gu bezalako herriei autodeterminazio eskubidea ez balioztatzeke.

Orduan, lehenengo fasea, idaztea, eginda dago. Hutsune handia zegoen hor, idatzi gabe zegoelako. Ba jadanik badago idatzita. Orain ikusi behar dugu nola heltzen garen hori behar den aldetik aitortua izateko, europar erakundeetatik aitortua izateko.



Zelai Nikolas Ezkurdia

Eusko Legebiltzarreko legelaria

Salimos a la calle para defender el empleo en Guardian Laudio

El 31 de enero participamos en la manifestación que recorrió las calles de Laudio en defensa de los 171 puestos de trabajo en riesgo por el anuncio de cierre de la fábrica de Guardian. Reclamamos una solución para garantizar el empleo de las 171 familias que pueden quedarse en la calle. Las instituciones, especialmente el Gobierno Vasco, deben implicarse y poner realmente en marcha un plan para reactivar la comarca de Aiaraldea, cuya economía ha sufrido duros golpes en los últimos años. Es el momento de afrontar una reconversión industrial que asegure el empleo en esa zona de Araba.



Estuvimos en el Tribunal Permanente de los Pueblos sobre Rojava

Los días 5 y 6 de febrero se celebró un juicio popular para analizar los crímenes de guerra cometidos por Turquía y las fuerzas paramilitares controladas aliadas contra la población kurda del noreste de Siria. La presidenta de la Fundación Alkartasuna, secretaria de Política Internacional de Eusko Alkartasuna y presidenta de la EFA, Lorena López de Lacalle Arizti, estuvo presente durante la sesión. Un panel de expertos internacionales analizó las pruebas que demostrarían los desplazamientos forzados, bombardeos, torturas y violencia contra las mujeres que ha sufrido la población kurda.



Aroztegiko 7 auziperatuekin elkartasuna adierazi genuen

Lekarozen egin nahi duten luxuzko urbanizazioaren obrak geldiarazi zituzten 7 ekintzaileen kontrako auzia salatuzko manifestazioarekin bat egin genuen otsailaren 1an, Iruñean. Lurraren defentsa delitua ez dela aldarrikatu genuen, auziperatuekin elkartasuna adieraziz. Epaiketa maiatzean izango da, 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 €-ko isunak eskatzen zaizkie. Espekulazioaren kontrako borroka eta lurraren defentsa kriminalizatzeko saiakeraren aurrean mobilizatu ginen, Iruñeko kaleak elkartasunez betez.



Rakel Goñi Lácar Bizkaiko Batzar Nagusietako mahaiko kide izendatu dute

Rakel Goñi Lácar EAKidea Bizkaiko Batzar Nagusietako mahaiko bigarren lehendakariorde kargua hartu zuen otsailaren 19an. Idoia Buruaga Barcena EH Bilduko kidearen oinordekoa hartu du mahaikide bezala.





alkartasuna
fundazioa

alkartasunafundazioa.eus • info@alkartasunafundazioa.eus



@alkartasun



euskoalkartasuna.eus • info@euskoalkartasuna.eus



@ealkartasuna



@euskoalkartasuna

ARABA

San Frantzisko kalea, 22 • 01001 • GASTEIZ
Tel. 945 23 27 62
araba@euskoalkartasuna.eus

BIZKAIA

Areatza, 2-3 • 48005 • BILBAO
Tel. 94 416 10 33
bizkaia@euskoalkartasuna.eus

GIPUZKOA

Portuetxe Bidea, 23 • 20018 • DONOSTIA
Tel. 943 02 01 30
gipuzkoa@euskoalkartasuna.eus

NAFARROA

Plaza del Castillo, 49 - 1º • 31001 • IRUÑA
Tel. 948 22 06 91
nafarroa@euskoalkartasuna.eus

IPARRALDE

34 Rue Pannecau • 64100 • BAIONA
Tel. 05 59 25 50 98
iparralde@euskoalkartasuna.eus